




guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN.

Asteazkena
azaroaren 25 izanen
da, emakumeen
aurkako indarkeriaren
nazioarteko eguna / 5

Presoen etxeratzea
eskatzeko ekimenak
eta manifestazioa
antolatu ditu
asteburuan Sarek / 6

Alkate berriak
Sakanan: Imanol
Arbizu Iturmendin
eta Joseba
Vizuete Olaztin / 7

Alex Txikonek 'La
montaña desnuda'
filma aurkeztuko du
asteazkenean
Altsasuko lortian / 11

'Ez Dok Ero'
Nafarroako
mustutzea izanen da
azaroaren 27an
Etxarri Aranatzen / 14

Letra bat, hainbat puntu

Euskaraldiaren kantuari Sustrai Colinak hitza eta Ion Celestinok doinua jarri dizkiote. Broken Bhothers Brass Bandek eta Lorena Aisak, Claudia Rodriguezek eta Idoia Tapiak (Skabidean) interpretatu dute. Celestinok pieza "jauzi bat bezala" konposatu zuen doinua. Letrak berak hizkuntzarekiko hainbat erreferentzia ditu, baina euskararen inguruko hainbat puntu azalertzeko bidea ematen du ere

24 orduz

asteko zazpi egunetan. Edo beste modu batera esanda: euskarak 365 egun behar ditu. Urte guztian euskaraz hitz egin, jolastu, sortu, lan egin, lagun artean ziria sartu... Gaur hasi eta abenduaren 4ra bitartean norabide horretan jarriko gara.



Euskaraldiko leloa. Parte hartzaile bakoitzak bere inguruko harreman sareetan (etxean, lanean, komertzioetan, lagunartean edo internet bidezko harremanetan) hizkuntza praktikak aztertu behar ditu eta euskara gehiago erabiltzeko aukera baliatu. Horretarako, ahobizi edo belarriprest rola hautatuta inertiak apurtu eta euskararen erabilera handitzeko pausoak emanen ditu.

Belarriprest eta ahobizi txapek taldeak sortzen dute. Horri esker jende askok euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko joera izan zuen lehen Euskaraldian. Eta, gainera, batzuek euskara erabiltzeak besteei euskaraz erantzuteko beharra piztu die. Edo elkarrizketa elebidunak mantentzea.

Itxian gordetakoak ahaztu eta galdu egiten dira. Euskara ez da bihotz ondoan edo aho zuloan gordeta izateko, hitz egin, irakurri, kantatu eta nahi duzunera da. Zenbat eta euskarazko ahots gehiago egon, aberatsagoa izanen da euskaldunen komunitatea. Guztia hasten da lehen hitzak euskaraz eginez, edo "mesedez, hitz egidazu euskaraz, ulertzen dut" esanez.

Euskaraldia hizkuntza ohituretan eragin nahi duen ekimen masiboa da. Aitor dezagun hizkuntza ohiturak aldatzea ez dela erraza. "Beti gaztelaniaz hitz egin dudana nire bikotekide edo kuadrillakoekin nola hasiko naiz orain euskaraz!" Halako egoerak aldatzen hasteko baliagarria da Euskaraldia. Ez da egun batetik bestera egiten den aldaketa bat, pauso txikiak emanez oinarriak jarri eta euskaraz hitz egiteko espazio berriak irabazten dira. Lehen Euskaraldiko ondorioetako bat hauxe izan zen: "orokorrean, parte hartzaileen hizkuntza jokaerak nabarmen astindu dira Euskaraldiak iraun duen bitartean. Hizkuntza jokaera berriaren arrasto esanguratsuak gelditu dira Euskaraldia bukatu eta hilabeteek aurrera egin ahala". Jarrera aktiboa hartu eta mingaina euskaraz dantzatzen hasi!

Euskaldunon Egunkaria itxi ondoren Ruper Ordorikak sortu zuen kantua da *Zaindu maite duzun hori* (*Kantuok jartzen ditut*, 2003, Metak). Pandemiak euskara eta euskararen komunitatearen zaurgarritasuna zenbaterainokoa den ikusteko balio izan du: konfinamenduaren ondorioz ikasle ugari euskaraz ez dute entzun irailan klasera bueltatu diren arte, agintarien komunikazioan euskararen erabilera eskasa, sortzaileak plazarik gabe, bertan behera gelditu dira Ikastolen eta Eskola publikoen festak, Durangoko Azoka, Korrika... Egoera honetan bereziki, Euskaraldiarekin bat egitea oso garrantzitsua da.

Bittor Kapanagak idatzi eta Gontzal Mendibilek doinua jarri zion *Bagare* kantuari, hainbat euskalkitan "bagara" hitza esaten duena (Gontzal Mendibil eta Xeberri. Zaurietartik dario, 1976, IZ). Euskalki aniztasunaren atzean hizkuntza bakarra zegoela aldarrikatu zuten. Gaur egun hiritartuta dugu euskara, unibertsitate ikerketan, artzaintzan, azokan, lantegian, lagun artean... Jatorriko mordo bateko hitzuna, adin guztietakoak... Bagera, "bat bera dugu, hizkera".



Izen ematea astearteko 23:59 arte luzatu dute
<http://izenematea.euskaraldia.eus/> atarian

24/7

Gehiago...Gehiagorekin...Gehiagotan.

*prest al zara? esan, esan... esan esan
prest al zara? esan... bai!*

*Zaindu maite duzun hori... zaindu.. zain gu... maite duzuna?
Armairutik atera armairua bera! Atera ba! Atera!*

*bagera –Ezer ez da berdina ta segi aurrera
bagare –Ez da erraza, baina halare...
bagira –Ez geratu begira
bagire –Ez esan ez dela posible*

*zenbat gara? Ni bat
24 / 7
zenbat gara? Gu bat
asko ta ez aski*


*prest bazara esan, esan
prest bazara esan
prest bazara esan, esan*

*"jalgi hadi plazara, jalgi hadi
han bat eta han bi.
hainbat... eta handi!"*

*jalgi hadi plazara, adi adi
batera... bat bera..."*

*bagera –mugetan preso inor ez dadila gera
bagare –aspaldi belarriak ahoen zain daude
bagira –ahoak belarrien bila dira
bagire –Gorputz txarrik ez da bizitzeko libre*

*zenbat gara? Ni bat
24 / 7
zenbat gara? Gu bat
asko ta ez aski*



Euskaraldian txaparekin kalera atera diren makina bat pertsona opatuko dituzu. Ni ugarik Gu bat osatuko dugu, sare bateko lotuneak, euskararen komunitatea, herriz herri eta euskararen eremu guztian. Zenbat eta hitzun aktibo gehiago izan osasun hobea izanen du euskarak. Hitz eginez euskara berrituko dugulako, euskaraz sortuko dutelako komunitatea elikatzeke, eta komunitate handia izanik korporazio handiek kontuan hartuko dutelako euskara garatzen dituzten gailuetan. Zeren etorkizunean, esaterako, euskaraz hitz egiten ez duten etxetresnak ez baditugu, kontu txarra.

COVID-19 gaitzagatik, Euskaraldia hau ez da lehenengoa bezalakoa izanen. Hala ere, makina bat sakandarrek erabaki dute belarriprest edo ahobizi izatea. Koronabirusaren eraginez gizarte harremanak murriztuta eta mugatuta dauden arren, jarraitzen dugu gure etxeetan, lagunartean, lanean, erosketetan eta bestelako espazioetan harremanak izaten. Horietan ere aldaketak egin ditzakegu. Horregatik, pandemia betean, Euskaraldiak zentzu osoa izaten segitzen du.

Bernat Etxeparek *Linguae Vasconum Primitiae* (Euskaldunen hizkuntzaren hasikinak) liburua argitaratu zuen Bordelen 1545ean. Hizkuntza garai hartako teknologia berrikuntzarekin, inprimategiarekin, bat egin zuen. Historian euskaraz inprimatu den lehen liburua izan zen. Etxeparek bazekien hori eta *Kontrapas* euskarari oda idatzi zuen bertan. Han ageri da "Euskara, jalgi hadi plazara" bertsoa.

Gaitza ez hedatzeko agintariekin ezarritako osasun neurriengatik, kalean bizitza badago, baina ez duela urte batekoa. Mugimendua bizi-bizi dago, ordea, sare sozialen plazan. Pandemiaren eraginez nabarmen handitu da sare bidezko pertsonen arteko harremanak. Horrek zer esan nahi du? Ahobizi edo belarriprest digitala aktibatu beharko ditugula. Hau da, sare sozialetara ere hizkuntza ohituren aldaketa ere iritsi behar dela eta mezuak (testua, audioa edo bideoa) euskaraz izateko pausoak eman beharko direla. Bakoitzaren rola kontuan hartuta.

Gaurtik abenduaren 4ra "radarra" piztuta, Euskaraldiko arrastoak batean eta bestean ikusiko ditugu: belarriprest eta ahobizi txapak, arigune identifikatzaileak eta leiho, balkoi eta erakusleihoetan jarritako banderak. Beti daude, eta jende ospinarekin topo egiten baduzu, gogoratu: paso egin, ez du merezi, haien arazoa da! Ariketa soziala egiten ez zaude bakarrik eta, gainera, harreman berriak euskaraz sortzeko aukera ederraz baliatzeko aukera izanen duzu. Euskararekin gozatzeko garaia da Euskaraldia.

Belarriprest eta ahobizi izanda ere, euskara maila desberdina dago parte hartzaileen artean. Mugak-muga, norberak duen euskararekin ideiak komunikatzeko gai da. Euskaraldia mihia askatu eta, nola edo hala, euskaraz hitz egiteko gonbidapena da. Izan dezakegun lotsa kentzeko, lotsa kentzen laguntzeko eta elkarrekin aurrera egiteko. Elkarriketa elebidunei eustea izan daiteke bidea edo euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko gaitasun mugatua dutenekin euskaraz beste modu batera aritzea. Dena euskaraz hitz egiteko gonbidapenarekin hasten da.

Belarriprest eta ahobizi. Ahobizi edo belarriprest. Rol bat ez da bestea baino garrantzitsuagoa. Biak dira ezinbestekoak euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin egiteko. Batzuk eta besteak elkarrekin arituz, hizkuntza ohiturak aldatzeko oinarriak jarriko ditugu.

Belarriprest eta ahobizi rolak errazteko garrantzitsua da inguruan gure praktikak erraztuko dituzten espazioak sortzea eta izatea. Horiek dira ariguneak, euskaraz funtzionatzen duten espazioak. Izan daiteke denda bat, taberna bat, udaletxe harrera, kiroldegia, kultur etxea, lantokia, gastronomia, kirol edo kultur elkarteak... Bakoitzak ahal duen neurrian. Gaurtik aurrera hainbat establezimenduren sarreran edo mostradoreetan ikusiko dituzu arigune identifikagarriak. Haietan euskararen aldeko espazio bat dago.



Kutxabank
EUSKARALDIArekin

GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra





ASTEKOA

JOSUNE GORRITI FERNANDEZ

Bakardadea uxatzeko, hobe maskotak adoptatzea erostea baino

Haurra nintzela, kalean zein basoan ikusten nituen animaliak gure etxean bukatzen zuten, nahiz eta amak argi eta garbi esana zidan: "Ez ekarri inolako animaliarik, gero nik neuk zaindu beharko ditut eta". Aitortu behar dut orain nik gauza bera esaten diodala semeari.

Mitxinak, txoriak, arrainak, kilkerra, txipak edo zapaburuak edota karakolak izan genituen. Herrian galdurik agertutakoak, basoan "erreskatatukoak" edota norbaitek emandakoak ziren; izeba Elvirak eman zigun dortoka zaharra bezala, gurean gutxi iraun zuena, gaixoak. Oparitua ailegatu zen ere Dorado arraina. Honek patu txarragoa bizi zuen, arropa garbigailuaren atzean seko hilik aurkitu baikeuen, bat-batean desagertu, eta egun luzez bilatu ondoren. Dirudienez, hor bukatu zuen jauzi nagusi bikoitza egin ondoren. Habiatiak eroritako txoriak ere etxeratu genituen behin. Txiki-txikiak, lumarik gabe, gorrixka garden eta moko horixkakoak. Xiringa txiki batekin ematen genien jatekoa. Ez zuten luzaroan irauten, bizirik mantentzen ahalegintzen baginen ere. Bat soilik hazi eta naturan berraskatzea lortu genuen ahizpak eta biok.

MASKOTA LUZERAKO IZAN DADILA ETA HOBE ADOPTATZEA, EROSTEA BAINO

bakardadean ospatu beharko dituzte festak. Zenbaitentzako egoera berri hau onuragarria izango da. Besteen kasuan, aldez, berez bizi duten egoera jasanezin tristea areagotuko zaie. Edozein urtaro eta bizitza atal ezberdinetan, animaliak edota maskotak bakardadea uxatzen laguntzen digute. Gogoratu, maskoten inguruko hausnarketa egiterakoan: luzerako izan dadila eta hobe adoptatzea, erostea baino. Egun animaliak adoptatzeko edo hartzeko aukera ezberdinak badira, baita Interneten ere. Adibidez, "Las Txikas de Etxauri", ekimen benetan berezia. Bere Facebooken lotura hementxe: www.facebook.com/TxikasdeEtxauri.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). **GUAIXEK** eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNAK

Baikolarko bizilagunak babesgabe sentitzen gara

MIKEL URIBE NAPAL

BAIKOLAR BIZIRIK

Baikolar Bizirik taldetik auzoan bizi dugun egoeraren berri eman nahi dugu.

Aurreko komunikatuan udalaren jakinarazpen baten zain geundela esan genuen. Eta azkenean iritsi dira espero genituen eskutitzak; hau da, Baikolarko hirigintza plan berezia gauzatzeko proposamena. Nabarmenezkoa da ia bi hilabete berandu iritsi direla eta ez esan zuten moduan, bilera egin eta hamar egun geroago.

Jakinazpen horietan planteatutako bi proposamenak eza-gutu ditugu. Lehenengo aukera etxeak kontsolidatzea eta kontsolidatu gabeko eraikinak (baserriak, txabolak eta industria nabeak) botatzear datza. Kasu horretan etxebizitzak mantentzen dira, baina bizilagunok lurraren zati bat galtzen dugu. Gainera, diru kopuru handia ordaindu beharko genuke, osotara 1.288.574,70 euro. Gure gain hartu ezin dugun kopuru izugarria. Bigarren aukera etxeak, baserriak eta bestelako eraikinak botatzea litzateke eta lurraren berrantolaketa bat egitea. Honakoan ordaindu beharreko kopurua askoz handiagoa da, guztira 2.072.711,10 euro.

Bidalitako dokumentua ulertezina da kaleko pertsonendako eta horrek dugun informazio falta areagotzen du, denbora luzez pairatzen ari garena. Guztioi ohar bera bidali digute, bakoitzari nola eragiten dion zehaztu gabe. Jakin badakigu familia bakoitzak ordaindu behar duena ez dela berdina. Eskatu daitekeen

gutxienekoa datu guztiak mahai gainean izatea da.

Lotsagarria iruditzen zaigu aukeretako bat eraikin guztiak botatzea izatea. Ez dezagun ahaztu familia askoren etxebizitzak dira, ez besterik! Proposamen honen helburu bakarra lehenengo aukeratzea derrigortzea da. Argi dago bizilagunon beldurra- rekin jolasten ari direla, zeren parte hartze planak bi aukera bakarrik eskaintzen ditu, horietako bat pentsaezina denean.

Hori gutxi balitz, hamar lan eguneko epea ematen digute familia bakoitzari nahi dugun proposamena adierazteko. Egun kopuru irigarria da, horrelako erabaki garrantzitsua hartzeko, gure bizitzetan eragin zuzena izango duena.

Babesgabe sentitzen gara berriz ere udalaren jarreraren eraginez. Ez dugu uste bi aukera bakar horiek planteatu daitezkeenik. Auzokideen iritzia kontuan hartzea aldarrikatzen dugu, arkitecto bere bulegotik atera dadila eta paperetatik kanpo sostengatzen den proiektu bat proposa dezala.

Ez dugu onartuko Baikolar auzoa urbanizazio triste batean bihurtzea!

Burgesiaren zuzeneko diktadura gelditu!

IDOIA TORRENTE ARMENTIA

SAKANAKO GAZTE KOORDINADORA
SOZIALISTA

Urria bukaeran Gazte Koordinadora Sozialistak (GKS) oligarkia finantzarioak, politikari profesionalek eta enpresari handiek ezarritako salbuespen egoeraren aurkako salaketa kanpaina abiatu genuen. Agerian utziz, birusaren hedapenaren aitzakiapean hartutako neurriek, osasun arloari erantzutetik urrun, gutxi

batzuen interes ekonomiko eta politikoei erantzuten dietela.

Gure egunerokotasunean pobretzea eta eskubide zibil zein politikoen urraketa nabarmendu dira. Burgesia datozen urteetan gure bizitzak arautuko dituen norma eraikitzen ari da. Horrela, normaltasun berria pobrezia, arbitrariotasunak eta kontrol sozialak ezaugarrituko duela agerian gelditu da.

Gainera, eskubide zibil eta politikoen ezabapenaren aurrean alderdi politiko instituzionalek ez dute oposizio errealik planteatu. Izan ere, sozialdemokraziak ezarri diren neurriak zuritu eta erantzukizuna indibiduoan ezarri ditu. Honen adibide da gazte langileongan areagotu den kriminalizazioa, ardua gure aisialdian jarritz, ikastetxe, lantoki edota garraio publikoan segurtasun neurri eskasekin aurkitzen garen bitartean.

Kapitalismoaren fase aldaketaren baitan, biztanleriaren gehiengoak babesgabe aurkitzen da, honen adierazle dira etxekaleratzeak edo osasun eskubidearen urraketa.

Irtenbide bakar gisa antolakuntza komunista defendatzen dugu. Eskubideen defentsarako eta askatasunaren unibertsalizaziorako alderdia egoera honi aurre egiteko bidea dela deritzogu.

Heldu den larunbatean, aldarrikapen nagusi hauekin aterako gara kalera: neurri diziplinario eta polizialak indargabetzea, osasun baliabide sozialak indartzea, eskubide zibil eta politikoak bermatzea eta langileriaren antolakuntza komunista hedatzea.

Larunbatean, azaroak 21, Nafarroako GKS Iruñeko autobus geltokitik 18:30tan abiatuko dugun manifestaziora gerturatzeko gonbita luzatzen dugu.

guaixe

SAKANAKO ATEKARIA

www.guaixe.eus**Koordinatzailea:**Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus**GK diseinu zerbitzua:**Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus**Administrazioa:**Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus**Zuzentzailea:**Felix Alzelai Iriarte
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200**Erredakzio burua:**Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus**Erredakzioa:**Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus**Maketatzailea:**Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus**Publizitatea:**Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus**ARGITARATZAILA:**Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK


Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Idoia Goikoetxea Gomez eta Oihana Gallo San Roman Altsasuko Udaleko eta Sakanako Mank-eko berdintasun teknikariak. UTZITAKOIA

Arazoa hor dagoela azaleratzeko eguna

Asteazkenean azaroaren 25 izanen da, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna. Aldarrikatzeko eta kalera ateratzeko egun bat da. Elkarretaratzeak ez ezik, berdintasun zerbitzuek gaia lantzeko egitaraua prestatu du

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Datorren urtean berrogei urte beteko dira Hego Amerikako mugimendu feministak azaroaren 25a Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna izendatu zutela. 1960. urtean Dominikar Errepublikan izandako Mirabal ahizpen eraiketa gogoratu, salatu eta aldarrikatu nahi zuten egun honetan, eta horren bidez emakumeek jasaten duten indarkeriaren kontrako salaketarekin nahi zuten ere. 1999. urtean Nazio Batuen erakundeak Azaroaren 25 emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izendatu zuen. Orduetik, egun horretan emakumeek pairatzen duten indarkeria salatzen da.

Urtero ere, duela hainbat urte, berdintasun zerbitzua duten tokiko entitateek, Sakanako Mankomunitatea eta Altsasuko Udala barne, kanpaina, irudi eta adierazpen instituzionala kale-ratzen dute egunaren harira. Aurtengo leloa *Haiengatik, guztionatik* da. "Aurtengo testuingurura egokituta" dagoela azaldu du Oihana Gallo San Roman mankomunitateko berdintasun teknikariak. "Berdintasun teknikari guztiak elkartzen gara.

Ez da erraza hogeit hamar pertsonen artean zerbait adostea, baina argi daukagu egoera zein den, eta argi daukagu denok zergatik gertatzen den egoera hori", gaineratu du Idoia Goikoetxea Gomez Altsasuko Udaleko berdintasun teknikariak. "Elkarrekin inpak-tu handiagoa lortu nahi dugu".

Testuingurura egokituta

Gallok azaldu bezala, adierazpenean egoeraren irakurketa egin dute, eta urtero bezala kaleak beteko dituztela esan dute. Mugimendu feministak egindako lanari esker "honaino" iritsi direla aipatzen du testuak ere. "Jendarteak nahiko barneratuta du zein den arazoa, baina aurtengo testuinguruan kokatu nahi izan dugu aldarrikapena", eta COVID-19 birusak sortutako osasun krisialdiaren ondorioz indarkeria jasan duten emakumeen egoera jarri dute begirada. "Haien isolamenduaren eta bakardadearen irudia erakutsi dute. Biktima papera jendarteratu da. Lagundu behar zaiela eskatu da". Mezu horri buelta eman nahi izan diotela: "Biktima izatetik protagonista izatera aldarrikatu nahi dugu manifestu honen bidez".

HARA ZER DIEN

Haiengatik, guztionatik

SAKANAKO MANKOMUNITATEAREN ETA ALTSASUKO UDALAREN BERDINTASUN ARLOAK

Azaroaren 25ero bezala, gure herrietako kaleak aldarrikapenez beteko dira beste behin emakumeen aurkako indarkeria salatzen. Indarkeria hori giza eskubideen urraketa bat dela aldarrikatzen dugu berriz ere, bai eta gure jendartearen diren botere- eta desparekotasun harremanek eutsitako sistema patriarkalaren adierazpenik krudelena ere.

COVID-19aren pandemiak agerian utzi du oraindik ere bere horretan dirauten desberdinkeriak. Krisiek ez dute berekin ekartzen desberdinkeriak gutxitzea edo desagertzea, kontrakoa baizik. Konfinamenduak emakume ugariaren zaurgarritasun egoera areagotu zuen. Testuinguru horretan, hainbat arlotatik herritarren ardura eta laguntza eskatu dira denbora horretan indarkeria matxistaren biktima zirenen emakumeen egoera zailari

Berdintasun teknikariak jakinarazi dutenez, konfinamenduaren ondoren hirukoiztu egin dira indarkeria matxistagatik jarritako salaketak. "Argi utzi nahi dugu salaketa kopuruak ez duela esan nahi emakumeak direla. Emakume batek jar dezake salaketa bat baino gehiago, eta egon daitezke salaketarik jartzen ez duen emakumeak ere".

Protokoloa

Sakana mailan indarkeria jasaten duten emakumeen harre-ra koordinatua emateko helburuarekin, elkarlanean sortutako protokoloa osatu dute. Sakanako berdintasun teknikariak, hiru gizarte zerbitzuek, hiru osasun etxeek, Genero Indarkeria Jasan dutenen Taldea eta udaltzainek osatu dute protokoloa, eta bileretara ere Foruzaingoa joaten zela jakinarazi dute. Urte amaieran edo datorrenaren hasieran aurkeztea espero dute. "Eskualde ikuspegiarekin eta eskualde mailan Nafarroan egiten den lehenengo da".

Aldarrikapenak

Azaroaren 25erako egitarau osatua antolatu du Sakanako Mank-eko berdintasun zerbitzuak: antzezlanak, dokumentalen emanaldiak, hitzaldiak, escape rooma eta abar. Azaroaren 25aren goizean ikastetxetean egoerara egokitutako online jardunaldia antolatu dute.

"Osasun krisiari erantzuteko hartutako neurriek emakumeon bizitzengan inpaktua" agerikoa dela esan du Errafailak taldeak. "Isolamendua, familia, bikote edo bizikidetzat taldeekin burbuilak osatzea eta familia tradizionalaren eta nuklearraren gogortzea, beldurra...". *Heteropatriarkatua lehertu dezagun! Burbuila nuklearrik ez, eskerrik asko!* Lelopean, asteazkenean, 19:30ean, elkarretaratzea deitu dute, Iortia kultur gunean, Bilgune Feminista eta Altsasuko talde feministarekin batera. Lakuntzako Gazte Asanbladak elkarretaratzea deitu du, 17:30ean, Genero indarkeriaren aurka emakume langileok batu lelopean.

erantzuna emateko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu **emakumeen kontrako indarkeria errotik ateratzeko jendarte** osoa inplikatzeko duen garrantzia, eta azpimarratu konpromiso horrek osasun larrialditik harago doan errealitate bat izaten jarraitu behar duela.

Azken hilabeteotan oraindik ere, zenbait iturrik emakumeak biktimizatu eta haietaz irudi pasiboa helarazi dute. Begirada paternalista eta errukior horren aurrean eskatzen dugu indarkeria jasaten duten emakumeak erabakitze eta jarduteko gaitasuna duten subjektu gisa aurkeztea. Eraldaketarako dituzten mekanismo eta gaitasunak abiatuta indarkeriarik gabeko bizitza baterantz jotzeko: biktima izatetik bizirik ateratzera eta bizirik ateratzetik errealitatea eraldatzera. Hori guztia milaka emakumeren urtetako borroka eta aldarrikapenak emandako bultzadarekin indarkeria matxista errotik ateratzeko eta hura pairatzen duten emakumeen denon babesa agertzeko. Zalantzarik gabe, milaka lagunak munduko toki guztietan barna aldarrikatutako "ez zaude bakarrik" eta

"nik sinesten dizut" mezuak bultzada kolektibo bihurtu dira emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Zentzu horretan, beharrezkoa da berdintasunerantz aurrera egiten eta maskulinitate eta feminitate eredu tradizionalak deseraikitzen jarraitzea.

Gogorarazi nahi dugu, halaber, Administrazio Publikoek, bereziki Tokiko Entitateek, gauzatutako politiken eta ekintzen garrantzia sentsibilizazioaren arloan, indarkeriaren prebentzioan eta bizirik atera diren emakumeen arreta osoa ematen, betiere ahalduz esku hartzearen jomuga hartuta. Azken urteotan baliabide eta zerbitzu asko garatu dira indarkeria matxistari eta horren ondorioei aurre egiteko. Zentzu horretan, nabarmendu nahi dugu garrantzia handia duela zerbitzuak eta haien arteko koordinazioa hobetzen jarraitzeak, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpen desberdinei erantzun egokiak emateko.

Amaitzeko, herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu emakumeen kontrako indarkeria deuseztatzeko konpromisoa adieraztera eta azaroaren 25ean antolatzen diren jarduerak guztietan parte hartzea.

Presoen korapiloa askatzeko bidea egitera

'Bidea gara, bidean gaude' lelopean presoen eta iheslarien etxeratzea aldarrikatuko du Sarek larunbatean. Sakanako herrietan makina bat ekitaldi izanen dira eta guztiek bat egingo dute 19:30ean Etxarri Aranatzen abiatuko den eskualdeko manifestazio berezian

Maidar Betelu eta Eneida Carreño
SAKANA

Sarek "Izan Bidea" dinamika herrietara eraman nahi du eta *Bidean gara, bidean gaude* lelopean mobilizazioak antolatu ditu asteburuan. Nafarroan 40 ekimen baino gehiago izango dira, tartean Sakanan, presoen etxeratzea eskatzeko.

Mundiñanok "borondate politikoa" eskatu dio Gobernuari
Nafarroako Sareren arduradunetako bat da Mikel Mundiñano etxarriarra. Azaldu duenez, "Izan Bidea" dinamikarekin gizartea aktibatu nahi dute presoen korapiloa askatzeko. "Ahalik eta sentsibiltate ezberdinena duten pertsonengana heldu nahi dugu, guztien artean bidea egiteko, herri honetan sufrimendu garaia atzean utzi eta etorkizun batean presoak eta iheslariak etxeratzeko bidean jartzeko, elkarbizitza-



Sareko kideak, Mikel Mundiñano tartean, ekimenean parte hartzeko deia egiten. SARE

ri eta bakeari ekarpen gisa". Mundiñanok argi du Euskal Herriko gehiengo politikoa, sindikal eta sozial batek aspalditik aurrerapausoak eskatzen ditue-

la. "ETAk bere jardun armatua utzi zuenetik 10 urte pasa dira, armak entregatu zituenetik 3 urte eta bere disoluziotik 2 urte pasa dira, eta oraindik herri ho-

netan ez da normalizazio politiko bat eman; oraindik herri honetan asko sufritzen ari da, eta badaude itxi beharreko zauriak" gaineratu du. Horregatik, borondate politikoa eskatu dio Espainiako Gobernuari.

"Presoen mugimendu batzuk egon dira, baina egoera aldatzeko benetako borondate politikorik erakusten ez bada, mugimendu horiek partxe moduan ikus daitezke. Garaia da borondate politikoa batekin egoera hau iraultzeko. Horregatik, guk salatzen jarraituko dugu presoak etxetik ehunka eta milaka kilometrorra daudela, batzbeste euskal presoen %80 etxetik 650 kilometrorra daudela, eta presoek ezartzen zaien salbuespen politikak aurrera jarraitzen duela. Urruntze politika behin betiko amaitu behar da" dio Sareko kideak.

Pandemiak espetxeetako egoera gogortu duela nabarmendu du Mundiñanok. "Mediku falta eta higiene falta dago espetxeetan. Azken bi asteetan badirudi bidaiatzeko halako "baimen" bat dagoela eta senideek bisitak egin ahal izan dituzte, baina gogoratu behar da preso asko martxotik aurrez aurrekorik edo vis a vis gabe daudela, horrek esan nahi duen guztiarekin". Sakanako presoen kasuan, ez da aldaketarik eman, eta bakoitzak orain arte zegoen espetxean jarraitzen du. Mundiñanok argi du presoak etxeratze bidean jarri behar direla. "Presoak bere komunitate-tik gertuen dagoen espetxean egon beharko lukete, legeak esaten duelako baina baita egoera sanitario zail honek hala eskatzen duelako".

Etxarriko manifestazioak presoen etxeak lotuko ditu
Bihar makina bat ekitaldi antolatu dira Sakanan. Pandemia dela eta osasun neurriak errespetatuz egingo dira. Sarek arratsalderako Etxarri Aranatzen 19:30ean abiatuko den eskualdeko manifestazioan parte hartzeko deialdia egin die sakandarrei. Manifestazio berezia izanen da, Oihan, Asier, Luis, Unai, Juan Ramon, Gurutz eta Karlos presoen etxeak lotuko baitira. "Beraien etxeetatik pasako gara gure elkartasuna eta maitasuna adieraztera" azaldu du Mundiñanok. "Badakigu pandemia dela eta jendea gaizki pasatzen ari dela, baina espetxeetan okerragoa da egoera. Momentua da kalera ater-

Sakanako deialdiak (azaroak 21)

- **Irurtzun / Arakil:** Goizeko 10:30ean Irurtzundik abiatuta, Latasara martxa oinez. 12:00etan ekitaldia Latasan, Jauntsarats, Lekunberri eta Betelutik abiatutako adarrekin batera.
- **Lakuntza:** 12:00etatik 13:00etara 'Baietz 200 km egin' herri erronka, oinez edo korrika, herrian presatutako zirkuituan. Izena ematea (herrierronka@gmail.com).
- **Arbizu:** 17:00etan, ekimen mobilizatzailea herrian presatutako zirkuituan.
- **Etxarri Aranatz:** 07:30ean 'Patioaren bueltan' ekimenaren hasiera. 12 orduz jarraian patioari buelta; 09:30ean Maiatzera igoera herritarra; 11:00etan bizikleta martxa (Etxarri Aranatz-Lizarragabengoa- Arbizu-Etxarri Aranatz buelta 7 aldiz); 12:00etan Arkaitz Errazkinekin ibilbidea Etxarri Aranatzko historian bama; 17:00etan herri kirolak, 7 kuadrillen desafioa; 19:00etan joaldunak herrian zehar; 19:30ean eskualdeko manifestazio berezia Oihan, Asier, Luis, Unai, Juan Ramon, Gurutz eta Karlos presoen etxeak lotuz.
- **Bakaiku:** 09:30ean Irumugetara martxa, plazatik. 10:30ean Mandubitan, 11:00etan Auntzetxen, 12:00etan Irumugetan.
- **Altsasu:** 11:30etik 13:00etara: 'Baietz 300 km egin' herri erronka, Altsasutik Urdiaingo igerilekue-taraino buelta eginez. Bestela, norberak aukera deztala: oinez, korrika, bizikletan, mendi bueltan... 13:00etan elkarretaratzea Altsasukoko Foru plazan, kilometro zenbaketa egiteko.

GUTUNA

Argi eta ozen, DENAK ETXERA!

MIKEL MUNDIÑANO ETA FRAN BALDA
NAFARROAKO SAREREN ARDURADUNAK

Badakigu azken hilabeteotan herriz herri, auzoz auzo egiten ari den lanak oinarri sendoak jarriko dituela, eta horrek aukera emango duela aurrerago dinamika are indartsuagoa abian jartzeko, horretarako garaia da eta. Gizarte honek konponbidearen bidea erai-nahi du, preso eta iheslariak etxera bueltatzeko bidea, bizikidetzara eta bakera daraman bidea. Azaroaren 21ean berriz aterako gara gure herri, auzo eta hirietako kale eta plazetara, egun horretarako deitu ditugun hainbat ekimene-tan parte hartzera. Ikusten duzue-nez, ez gara gelditzen, ez dugu gelditu nahi. Lerro hauen bidez animatu nahi ditugu herritarrak,

bidearen parte izan nahi duten guztiak, azaroaren 21ean kalera atera daitezen beste behin ere.

Helburua presoak eta iheslariak etxera itzultzea da. Eta horretarako, urratsez urrats, bidea egiten jarraituko dugu. Aurrera begiratu eta aurrera egin nahi dugu. Espainiako eta Frantziako gobernuen borondate politikoa eskatzen jarraitu behar dugu, eta horrekin batera salatu oraindik ere ehunka preso daudela etxetik urrun, kilometro askotara. Azken hilabeteetako mugimenduekin ez da urruntze politika bukatzen, ez eta euskal presoek ezartzen zaien salbuespeneko politika ere. Urtetako sufrimenduari behin betiko soluzioa emateko borondate politikorik ez dagoen bitartean, horiek adabaki hutsak izango dira. Guk urruntze politika behin betiko amaitzea eta preso guztiak etxera etortzea nahi dugu. Argi eta ozen diogu: etxera.

Azken finean, egungo espetxe politikak ahalbidetzen du oinarritzko eskubideen urratze larriak gertatzea. Horrek agerian uzten duen ankerkeria amaierarik ez duen zigor erantsia da, ezin bestela ulertu. Horrexegatik, berriz ere, justizia eta salbuespen erregimenaren bukaera eskatuko ditugu, biak ukatzen ari zaizkielako euskal presoek.

Azkenik, aldarrikatu nahi dugu euskal presoak eta haien senideak ez daudela bakarrik eskubide urraketa horien aurrean, kalean gero eta gehiago garelako haien duintasunaren, haien eskubideen eta haien etxeratzearen alde borrokan.

Segi dezagun lanean orain arte bezala. Unea iritsi da. Gehiengo politiko, sindikal eta sozialak ere hala eskatzen du. Helburua lortu arte, urratsak egiten jarraitu behar dugu. Segi dezagun bidea egiten, izan gaitezen bidea. Bidea gara, bidean gaude.

ratzeko, presoen korapiloa askatu behar dugula aldarrikatzera. Jendea animatu behar dugu bidearen parte izatera. Segi dezagun bidea egiten, izan gaitezen bidea eta egin dezagun bidea" nabarmendu du Mundiñanok.



Iturmendiko alkatea, Imanol Arbizu, erdian, alboan eta atzean zinegotziak dituela. UTZITAKOA

"Inor ez zegoenez, udalean sartzera animatu ginen"

IMANOL ARBIZU PERPIÑA ITURMENDIKO ALKATE BERRIA

Herriko gazte kuadrilla batek Iturmendiko Udalaren kargua hartu du, kudeaketa batzordea osatu eta gero. Udalaren martxa hartzea dela euren lehen lana adierazi du alkate berriak

Alfredo Alvaro eta Maider Betelu
ITURMENDI

Joan den urtean izan ziren udal hauteskundeak eta Iturmendi izan zen udala berritu ez zuen Sakanako herri bakarra. Urte baten bueltan albiste pozgarria dago, kudeaketa batzordea sortu baita Iturmendin. Herriko gazte kuadrilla batek hartu du udaletxera sartu eta Iturmendiko Udala kudeatzeko ardura, eta tartean da Iturmendiko gaur egungo alkate den Imanol Arbizu Perpiña.

Nola animatu zarete udalean lanean sartzera? Gazte kuadrilla bat zarete eta askotan pentsatzen da gazteak ez zaretela halakoetara animatzen.

Bueno, ez dakit ere horren gazteak garen (kar, kar...). Kontua da ikusten genuela denborak aurrera egiten zuela, eta denbora pasa ahala ez zuela inork udalean sartu nahi. Bestetik, bagenuen beldurra agian kanpotik talderen bat edo norbait sartuko ote zen, beste herri batzuetan gertatu zen bezala, eta orduan kuadrillakoak elkartu ginen gaiaz aritzeko. Hasiera batean jende ezberdina

"NIK USTE HERRITARREK NAHIKO ONGI HARTU DUTELA GU UDALEAN SARTZEA, HERRIKOAK BAIKARA"

gugana hurbiltzea nahi genuen, beste adin bateko jendea, baina zaila ikusten genuen, eta, azkenean, Iturmendiko udalean sartzera animatzea erabaki genuen. **Kuadrillako bazkari eta afarietan beharrean orain pleno aretoan elkartuko zarete.**

Halako zerbait ematen du (kar, kar...), baina argi utzi dugu ple-noan gertatzen dena bertan gedituko dela eta hortik kanpo beste gauzetara jarriko garela, gure gauzetara.

Beraz, udaleko etxeko lanak ez dituzue kuadrilla afarietara edo mendi bueltetara eramango.

Hori da! Azkenean udaletxeko lanak eta kontuak beti izango dira ongi aztertu eta eztabaida-

tzekoak, edo gure artean akordioetara iristeko momentuak. Konfiantzarekin sartu gara udaletxera, guztion artean konfiantza dugu eta udaletxekoa hor bertan geratuko da.

Nola hartu dute iturmendiarrek zuek herria kudeatuko duzuenaren albisteak?

Uste dut hasiera batean sorpresaz hartu zutela. Izan ere, aurreko udaleko kideek bilera bat deitu zuten esanez kargua utziko zutela, ea norbait aurkeztuko ote zen, eta orduan ez genuen erabakirik hartu. Alde horretatik igual sorpresaz hartu dute herritarrek gu sartzea, baina nik uste nahiko ongi hartu dutela, ikusten dutelako azkenean sartu garenak herrikoak garela.

Behin udalera sartuta, helburu konkreturen bat duzue edo momentuz udalaren kudeaketa eta gestioarekin nahiko lan duzue?

Asmoa da lehendabizi pixkanaka ikastea eta dauden gai guztien martxa hartzea; gure esperientzia kontuan hartuta ea gehiena egiteko gai garen. Bestela, momentuz ez dugu plangintza zehatzik; lanean hasi eta martxa hartzea. Gero etorriko dira.

Noiz bilduko da Iturmendiko kudeaketa batzordea? Udal osoko bilkurak egiteko data finkoren bat jarri duzue?

Pentsatu dugu bilkurak hilabete-ko azken ostiralean egitea, baina orain, hasieran, astean behin biltzen gara, dauden lan guztiak aztertu eta udaleko martxa ikasteko.

Udalak herria gobernatu behar du, baina gero udalez gaindiko entitateak daude, Sakanako Mankomunitatea, Osasun Kontseiluak eta beste, eta halakoetara ere joan behar da. Zazpien artean banatu ahal duzue lana?

Oraindik ez dugu zehaztu nor joango den aipatu entitateetara, baina argi duguna da binaka joango garela. Horrela nahi dugu. Azkenean pertsona batek izan behar du alkatea, kasu honetan niri egokitu zait, baina guk denok bat egitea nahi dugu eta denon ardura berdina izatea. Hori lor-tu nahi dugu.



Joseba Vizuete alkatea.

Olatzagutian alkate berria aukeratuta

Hilaren aurreneko astetik Olatzagutian alkate berria du: Joseba Vizuete Askargorta, Roberto Martinez Mendiari lekukoa hartu diona. Joseba Vizuete koalizioaren zerrendan bigarrena zen.

Alkateak esan duenez, ardura berria "lan egiteko gogoekin" hartu du. "Hauteskunde programan jasotakoari eta egindako lanari segida ematea da asmoa", azaldu duenez. EH Bilduk gehiengo osoa du Olatzagutiako Udalean sei zinegotzirekin, baina orain aulki bat hutsik dute. Horretaz galdetuta, Vizuetek azaldu du EH Bilduko zerrendako gainontzeko kideekin kontsultatuko dutela gaia eta hartuko dutela erabakia.

Lan berriari ekiteko ilusioz?

Bai, gogotsu gaude, baina egia da ere hasiera batean gure beldurra eta gure kezka badi-tugula. Dena den, uste dut pixkanaka martxa hartzen joango garela eta lasaituko garela.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehio berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea





Duela lau urte Altsasu Auziagatik lehenengo atxiloketak izan ziren.

Oraindik ez da amaitu

Altsasu Auziagatik lehenengo atxiloketen laugarren urteurrena gogoratzeko eta "injustizia" salatzeke ekimen xumea egin zuten, eta "Lau urte. Altsasukoak Aske" eskultura mugikorra mustu zuten



Jubilatuei omenaldia Lizarragan

Azaroko hirugarren astean ospatu zituzten San Klemente festak lize-rratarrek. Sainduaren egunean, azaroaren 23an (osteguna) Jubilatuen Eguna ospatu zuten. Meza nagusiaren ondoren Kontzeju etxean jubila-
tuei omenaldia egin zieten. Denek opari txikiren bat jaso zuten. Gainera, adin handiena zuten emakumezkoak eta gizonezkoak plaka bat jaso zuten. Ospakizunak bazkariarekin eta musikarekin segitu zuten. Elurrik ez, baina euria egin zuten. Eta herritarrak pozik zeuden, euria egiten zuelako, zeren "aspaldiko partes utse moztutzen hasi zien ordu betzus".

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

"Gure istorioa oraindik ez den bukatu, gure buruari ez diogu gogorarazteko denborarik eman". Amaia Amilibia Jon Ander Coben ama eta Altsasu Gurasoak taldeko kidearen hitzak dira. Larunbatean lau urte egin zituen Altsasuko ferietako liskarragatik lehenengo zazpi gazteen atxiloketak izan zirela, eta kartzelan jarraitzen duten Jonanek eta Julenek, lan egiteko eta ikasteko ateratzeko baimena jaso dute aurki. Adur, Jokin, Oihan, Iñaki eta Aratz hirugarren gradu-
dau, Altsasun. Egoera desberdina den arren, "lau urte askatasunik gabe" daramatzate. Lau-
garren urteurrena gogoratzeko larunbatean "Lau urte. Altsasu-
koak Aske" eskultura mugikorra mustu zuten Altsasu Gurasoak taldeak eta Altsasukoak Aske plataformak. Eskultura bi edo

hiru astez Altsasun egonen da, eta ondoren herrietara eramatea aurreikusi dute.

Espainiako Auzitegietan azken urteetan izan den "injustizia" kasu nabarmenetariko baten moduan bezala oroitu dela esan zuen Antxon Ramirez de Alda Altsasu Gurasoak taldeko kideak larunbatean egindako ekimenean: "Lau urte luze izan dira borondatezko esku hartze ankerra eta zentzugabea izan duen prozesu judizial honetan murgildurik aurkitzen garelara, ezkutuko interesak dituen eta oinarritzko eskubideak behin eta berriro zapuztu dituen". Gogoratu zuenez, Nafarroako Auzitegian haien burua aurkeztu zituzten arren, duela lau urteko azaroaren 14an "gure seme-alabeta-ko zazpi" atxilotu zituen Guardia Zibilak.

Goiz hura

Oihan eta Aratz Gasteizen eta Goierri atxilotu zituzten, beraien ikastetxeetarako bidean; Ainara praktikak egiten ari zen Aguraingo egoitzan, eta Jokin, Jonan eta Julen beraien etxeetan. Madrileran eraman zituzten eta deklaratu ondoren Ainara aske gelditu zen. "Gehiegizko operazio bat izan zen, iraganeko operazio polizialean oinarria zuena". Altsasuko herria eta gazteria kriminalizatzeke asmoarekin egindakoa izan zela gaineratu zuten. Zazpigarren gaztea, Adur, bere burua Auzitegi Nazionalen aurkeztu zuenean atxilotu zuten.

Azaroaren 14ko atxiloketak "zentzugakeria luze baten hasiera" baino ez zirela izan esan zuen Ramirez de Alda ekimenean. Adurrek, Jokinek eta Oihanek hiru urte eta erdi pasa dute espetxean Madrileko hainbat kartzelatan hasieran eta Zaballakoan ondoren. Uztailean hirugarren gradua eskuratu zuten. Gaur eguneko pandemia dela eta, eskumuturreko edo orkatilako pultsera telematikoa daramatzate eta lau egunez zortzi ordu etxean egon behar dira. 2024ko maiatzera arte ez zaie amaituko zigorra. Aratz eta Iñaki abendutik hirugarren gradu-
dau. Zigorra amaituko zaien lehenengoak izanen dira; 2022ko uztailean eta 2021eko urrian, hurrenez hurren.

Kartzelan

"Istoria oso bizia da, eta mingarria". Aratzek, Iñakik, Jonanek

eta Julenek bitan bizi behar izan zuten atxiloketaren esperientzia. "36 egun espetxean egon ondoren Audientzia Nazionalen Carmen Lamelaren aurrean deklaratu eta proba nahikorik ez zutenez, aske utzi zituen". Aske, baina ez libre. "Bi astetik behin sinatzera joan behar ziren", Amilibiak azaldu duenez. Epaia atera ondoren, 2018ko ekainean, berriz atxilotu zituzten, ihes egiteko arriskua zegoela argudiatuta. Hala ere, haien bizitzekin aurrera egin zutela esan dute Altsasu Gurasoak taldekideak, "ihes egiteko zantzurik gabe".

Lau urte askatasunik gabe pasa dutela esan du Amilibiak: "Preso zentzu zabalean". Ziurgabetasun handiarekin bizi ari dira egoera, "baita sufrimendurekin ere". Jonanek eta Julenek 930 egun daramatzate espetxean, eta Zaballako espetxe juntak hirugarren gradua eskatu du hezitzaileen, psikologoaren eta langile sozialaren informe "baikorrak" kontuan hartuta. Baina Madriletik ezezkia jaso dute. Familiek gradu mailaren kontrako helegiteak aurkeztu dituzte. Gainera, urte amaierara arte egun batzuk gelditzen zaizkie, baina pandemiaren ondorioz, "ondo pentsatu behar dute baimen egun horiek disfrutatu ondoren, hamar egun beste modulu batean pasatu behar dituztelako, isolamenduan". Azken berrien arabera, bigarren gradu-
dau jarraituko dute, baina bi gazteak lan egiteko eta ikasteko atera ahalko direla baimendu du Audientzia Nazionalen Presondegiko zaintza epaileak.

Europara

Espainiako justizia sistemaren urrats guztiak agortu dituzte. Auzitegi Nazionalak 2018an lehen zigorrak ezarri zituen, eta urte bete beranduago Auzitegi Gorenak zigorrak murriztu zituen. Bi auzitegietan helegiteak jarri zituzten, eta Auzitegi Konstituzionalen ezarri zuen, baina atzera bota zuten. Beraz, aukerak agortuta, Europako bidea "ireki" zaie: Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegian helegitea aurkeztuko dutela aurreikusi dute.

**JONAN ETA JULEN
LAN EGITERA ETA
IKASTERA
KARTZELATIK ATERA
AHALKO DIRA**



A25

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA
EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK BADIRAU ORAINDIK,
IKUSTEN EZ BADUZU ERE... EDO IKUSI NAHI EZ BADUZU ERE

IREKI BEGIAK



BERDINTASUNEAN
AURRERA EGITEAK
INDARKERIA EZABATZEN DU

generoindarkeriagehiagoez.nafarroa.eus



Instituto
Navarro
para la Igualdad



Nafarroako
Berdintasunerako
Institutua

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



25 Aniversario - 25th Anniversary

Aita topatuta, lasai hil daitekeela dio Dieguezek

Claudio Doroteo Dieguez etxarriarra Sorozarretan erahil zuten 1936an eta haren gorpuzkiak Nafarroako Memoriaren Institutuak identifikatu ditu, Otsoportilloko leizean berreskuratutakoen artean, bere alaba Concha Dieguez DNari esker

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Errioxarra zen jaiotzez Claudio Doroteo Dieguez Loza, San Asensiokoa (1900-10-30). RENFEko trenbideko sugile edo ikazkina zen eta Etxarri Aranatzan bizi zen, ezkontuta, lau seme-alabekin. CNT sindikatuko afiliatua zen. 1936ko irailaren 13an Miranda de Ebron atxilotu zuten, bertan lan egiten ari zela, eta Altsasura bidali zuten. Familiak jasotako testigantza baten arabera, gau horretan bertan Sorozarretara eraman zuten, han erahil zuten, beste hiru sakan-darrekin batera. Gorputzak bertan utzi eta bizilagun batzuek bertan lurperatu omen zituzten.

Sorozarretan ez zituzten aurkitu

Berriozarren bizi den bere alabak, Concha Dieguezek, aitaren gorpuzkiak bilatzeko lan nekaezina egin du urte luzez, Sakanako beste hainbat senitartekoekin batera. Duela 4 urte, 2016ko irailaren 14an, Nafarroako Fusilatuen Senitartekoen Elkarteak, hainbat sakandarren laguntzaz, 1936an Sorozarretako bide bazterrean eraillako lau errepublikazaleak omendu zituen, gertakarien 80. urtemugan. Claudio Doroteo Dieguez Loza etxarriarra, Eustaquio Bengoetxea Bengoetxea, Hilario Goikoetxea Agirre eta



Concha Dieguezek sekulako borroka egin du aitaren gorpuzkinak aurkitzeko. ARTXIBOA

Miguel Mikelez Agirre izan ziren gau hartan erahil zituzten lau sakandarrak. Senideek Nafarroako Gobernuari lau hildakoak opatzeko ahalegina egitea eskatu zieten, "senideek, azkenik, atsedeen hartu ahal zezaten".

Nahiz eta Sorozarretan bilaketa lanak egin, ez ziren haien gorpuzkiak bertan aurkitu. Izan ere, N-1 errepide zaharra 1936tik lautan zabaldu eta berritu da, eta gorpuzkiak haren azpian leudekeela pentsatzen zen. Aranzadi zientzia elkarteak 2010ean georradarra pasa zuen, baina ez

zuen gorpuen arrastorik opatu. Zezilio Oiarbide 12 urte zituen eta aldameneko baserri batean bizi zen gorpuk ikusi zituen. 2015ean harekin joan ziren tokia zehaztu asmoz. Baina ez zituzten opatu.

Sorozarretatik Otsaportillora

Asteartean Nafarroako Memoriaren Institutuak eman zuen berri ona: Claudio Doroteo Dieguez Loza identifikatu zutela, 2016an Otsaportilloko leizean berreskuratutako gorpuzkien artean, bere alaba Concha Die-

guez DNari esker. Otsaportilloko leizeak balio sinboliko handia du, bertan omentzen baitira 1936ko erahildakoak, eta identifikazio honek erakusten du Sorozarretako hezurak aurkitu zituenak bertara, Otsaportillora eramatea erabaki zuela.

Senitartekoei DNA laginak ematera hurbiltzeko deia

Gertakariak orain arteko lan hipotesiak berraztertzea ekarri du. Horregatik Nafarroako Gobernuak 1936an erahildakoen senitartekoei Nafarroako Gobernuaren DNA Banku publikora gerturatzeko deia egin die, euren DNA laginak hartzeko. Egund 244 txosten dira zabalik daudenak, baina askoz ere gehiago dira oraindik aurkitu ez diren biktimen gorpuzkiak. Lurpetik aterako hezurak identifikatu gabe daude, laborategian ez da goelako horretarako beharrezkoa den DNA laginik. Beraz, senitartekoen kolaborazioa eskatu dute.

Merezitako atsedena

Concha Dieguezek 6 urte zituen ikusi zuen azken aldiz aita. Sarritan azaldu duenez, "fusilatuaren umezurtz izatea, gerran garaitua izatea jasan behar izan dugu haurrak ginenetik, eta zauri horrek dirau". Familiak duten zauria soilik haien senideen hezurak berreskuratzeak senda dezakeela zihoen. Astearteko berri onak sekulako lasaitasuna eman dio 90 urte dituen Conchari. "Aita topatu zutela jakin nuen, bastoia gogor heldu nuen eta hunkitu nintzen. Aldi berean, sekulako lasaitasuna hartu nuen eta esan dezaket aitaren gorpuzkiak topatu eta gero, lasai hil naitekeela" aitortu du. Urte luzeetako zauria senda eta har dezatela merezitako atsedena.

Arakilgo etxeen izenak ikertzeko Jimeno Jurio Beka deitu dute

Ikerlariak abenduaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dute euren egitasmoa Arakilgo udalean

ARAKIL

Ondare ez materiala eta materiala berreskuratze bidean beste aurrerapauso bat egin du Arakilgo Udalak eta Arakilgo ondarea eta historia ikertzeko Jimeno Jurio Beka deitu du. Beka lortzen duen ikerlariak Arakilgo Bailara osatzen duten 12 kontzejuetako etxe izenen eta hauen garapenaren ikerketa bat egin beharko du, 1920 baino lehenago eraikitako etxeen ingurukoa.

Arakilgo Udalak 6.000 euroko diru kopurua zehaztu du Jimeno Jurio Bekarako. Bekan interesa dutenek eskaera orria, dokumentazioa eta informazio guztia www.arakil.net webgunean dute eskuragai, eta euren ikerketa egitasmoa abenduaren 19a baino lehen aurkeztu beharko dute Arakilgo Udal erregistroan. Bekadunak beka ematen denetik urte natural bateko epea izango du lanak egiteko.

Etxe izenen katalogoa sortu

Jimeno Jurio Bekarekin Arakilgo Udalak bailara osatzen duten 12 herrietako etxe izenen katalogo bat sortu nahi du, eta izendapen horien garai historikoaren inguruan hausnarketa bat. 1920a baino lehenago eraikitako etxeen izenak ikertuko dira.

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA - AUTOMOZIOA -

Lakuntza

ETXERA ERAMATEKO GASOLEOA

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

Konfiantzazko aseguradora orokorra!

MAPFRE

La aseguradora global de confianza

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU

PORTUKO

okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988 | Urdiain: 948 563 763



Alex Txikon Nanga Parbat gora, bizkarrean eskailera duela. ALEXTXIKON.COM

"Nanga Parbateko espedizioa bihotzetik kontatu dugu"

ALEX TXIKON ALPINISTA

MENDIA Alex Txikonek 'La montaña desnuda' filma eta liburua aurkeztuko ditu asteazkenean Altsasuko Iortia Kultur Gunean. Sarrerak agortuta daude

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Alex Txikon alpinistaren *La montaña desnuda* filmak eta liburua Txikonek Simone Moro italiarrarekin eta Ali Sadpara pakistaniarrarekin 2016ko otsailean Nanga Parbatera egin zuen espedizioa kontatzen du, neguko lehen espedizioa izan zena. Baina hori baino askoz ere gehiago da. Asteazkenean Altsasun izanen da Txikon bere lana erakusten, Katealderen eta Altsasuko Mendigoizaleak eta Dantzaleku Sakana taldeen eskutik.

Zergatik bururatu zitzaizun Nanga Parbateko espedizio honi buruzko filma egitea?

Batetik, irudi pila bat genituelako. Bestetik, tontorra egin eta gero, 2016ko udaberrian Movistar + telebistarako Robinson

"NEGUKO ESPEDIZIOAK OSO GOGORRAK DIRA; NANGA PARBATEKIN IZANDAKO HARREMANA KONTATZEN DU FILMAK"

txosten bat grabatu genuen espedizioari buruz, eta ondoren dokumental bat egin zitekeela banekien. Liburu autobiografiko bat ateratzeko asmoa nuen, baina azkenean dokumentala eta liburua prestatu ditut. Liburua idatzita nuen, baina egituratu gabe. Beraz, lan ugari egin behar izan dugu guztia prestatzeko. **Espedizio honek esan nahi berezia du zuretzat, akaso neguan izan zen lehendabizikoa izan zelako?** Ez bereziki. Guk berdin-berdin bizi dugu neguko espedizio hau,

oso gogorra izan zena, zein beste espedizio guztiak. Guztiek asetzen gaituzte, baita tontorre-raino iristen ez garenak ere.

la bost urte pasa ostean, Nanga Parbateko espedizio honen zein oroitzapen dituzu?

Oroitzapenak oso onak dira, geroz eta hobeagoak. Beste batzuk gaziak dira, esaterako 2019an Nanga Parbatera egindako azken bisitan Daniele Nardi eta Tom Ballarden erreskatean parte hartu genuen, baina ezinezkoa izan zen; oso atsekabetuta, alde horretatik. Dena den, Nanga Parbatera joan behar dugula esaten dut, beste modu batean gozatzeko. Tontorrean zaudela behera begira egotea zer den badakigu, baina behetik gorako bide horretan gozatzeko beste momentu batzuk beharko genituzke eta Nanga Parbati itzuli osoa ematea.

Konfinamendua ongi etorriko zitzaizun dokumentala eta liburua prestatzeko.

Filmaren ideia buruan zegoen azkeneko hiruzpalau urteetan, baina menditik bueltatu, eta lana dela, bestea dela... azkenean ez duzu astirik. Konfinamenduaren geldiduna izan da hau guztia aurrera ateratzeko aitzakia. Konfinamenduan kozinatu da dokumentala.

Egunotan zure lana aurkezten ari zara Espainiar Estatu guztian barrena. Non ibili zara?

Eromena izaten ari da. Aurreko ostiralean Madrilen izan ginen, handik Orensera joan ginen, iganderako Azpeitian geunden, astelehenean Eibarren, asteartean Arrigorriagan, asteazkenean Usansolon eta Arrigorriagan eta atzo Zallan. Gaur, ostirala, Lemoan egonen naiz, larunbatean Donezteben, igandean Lizarran, astelehenean Donostiako Fnac-en, asteartean Bergaran eta asteazkenean Altsasun. Egunero dago zer edo zer pelikularekin lotuta. Baina gustura, batez ere jendea gozatzen ari delako.

Zer nolako harrera izan du filmak?

Edukiera edo afroen muga penada, bestela jende askoz ere gehiago egongo bailitzateke emanaldietan, baina hala ere, filmak

"MAITASUNEZ ETA ILUSIOZ EGINDAKO FILMA DA GUREA; EGINDAKOAREKIN GUSTURA GERATU NAIZ"

oso harrera ona izan du. Bizitzen ari garen egoera honen aukera garaia bizi behar dugu. Besoak gurutzatuta etxean egon beharrean, egunero emanaldiak ematen gabiltza, eta jendeak gozatu egiten du. Hori da egoera honi egiten diogun gure ekarpena. Eta jendea motibatuta ateratzen da, ilusionatuta, irribarre handi batekin. Hori da lortu nahi duguna.

Asteazkenean Iortia Kultur Gunea gerturatzen direnek zer topatuko dute *La montaña desnuda*-n?

Publiko guztiendako film bat. Nire ustez pelikula txukun bat topatuko dute, maitasunez eta ilusio guztiarekin eginda dagoen film bat. Sorpresa eman nahi dugu. Ez dut gehiegi sakonduko, bestela zer ikusiko duten jakingo dute (kar, kar...).

Nanga Parbateko irudi ikusgarriekin batera, espedizio baten xehetasunak eta egunerokoak ikusteko aukera ematen al du filmak?

Irudi ikusgarriak ikusiko dira, bai, baina ez da mendizaletasunari lotutako publiko jakin bati bideratutako lana. Publiko guztiendako filma da. Guk Nanga Parbatekin izandako harremana kontatzen du. Filmeko zuzendaria eta gidoilaria izan naiz lehen aldiz, eta uste dut lan txukuna dela, kontuan hartuta profesionalak ez garela. Baina filma muntatzerakoan profesionalak aritu dira: Aritz Lete soinu teknikaria, Sara Cozarren ahotsak, Bimusikako doinu eta musika originala, Iñaki Madariagaren diseinua eta efektuak...

Filmean eta liburuan egindako lanarekin gustura geratu zara?

Gustura gelditu naiz. Jendearen harrera oso ona izaten ari da. Emanaldietan saiatzen gara jendearekin hartu harremana izaten euren zalantzak eta kezak argitzen. Lan honekin guez gara bikain bat lortzera joan, ezta nahiko bat lortzera joan. Espedizio bat kontatzera joan gara, bihotzetik eta gertutasunetik, gauza askotatik aldenduz.

Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak? Pandemia dela eta, noiz ikusiko zaitugu mendian?

Aurten bi film ekoiztu ditugu, hau eta *La cumbre es el camino*, eta liburua ere bagabiltza. Gauzak ongi badaude, gustura joango ginateke Himalaya alde- ra. Hori da gure asmoa, eta ziur gaude aukera izango dugula. Beraz, horretan ere bagaude buru belarri.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 20

LAKUNTZA Euskaraldia: Txapa
banaketa eta Euskaraldiaren
hasiera.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Gozamenez. Hiri
dantza tailerra: gorputzaren
mezuak, mugitzearen plazerra.
12 eta 30 urte bitartean.
Dinamizatzailea: Oihulari Klown.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ETXARRI ARANATZ Emakumeen
aurkako indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna. Zirika
Zirkusen *Pantxika Lamur
Alter (H)ego(ak)* gazte eta
helduendako antzerkia.
Etxarriko Udalak antolatuta.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Ongi etorri
Euskaraldia. Auto karabana
megafoniarekin.
19:00etan, herrian barna.

ETXARRI ARANATZ Ongi Etorri
Euskaraldia. Herria puxikaz
apainduko da, kartulinetan
esaldiak idatziko dira eta
belarriprest eta ahobizi
erraldoiekin argazkia aterako da.
19:00etan, herrian zehar.

ETXARRI ARANATZ Txikito gose
eta egarri greba mugagabeen
independentziaren eta
sozialismoaren alde.
Amnistiaren aldeko eta
Errepresioaren aurkako
Mugimenduak deitutako
elkarretaratzea.
19:15ean, Etxarri Aranazko plazan.

SAKANA Arbizu eta Etxarri
Aranatz. Euskal presoak, Euskal
Herrira elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 21

BAKAIKU Bidea gara, bidean
gaude. Izan bidea dinamikaren
martxa: Irumugeta-Mandubi-
Auntzetxe-Irumugeta.
09:30ean, plazan.

IRURTZUN Udazkena Sakanan.
Gure ibilbideak ezagutuz: Saien
balkoia.
Ibilbide gidatua eta dastaketa. 10
euro. Izena emateak: info@mirua.
com edo 608560369.
10:00etan, plazan.

IRURTZUN Bidea gara, bidan
gaude. Izan bidea dinamikaren
martxa: Larraun-Basaburua-
Imotz-Irurtzun-Arakil-Araitz.
10:30ean, Irurtzundik pasako da.

ALTSASU Bidea gara, bidean
gaude. Izan bidea dinamikaren
Baietz 300 km egin herri erronka
Urdiaingo igerilekuetara.
Ondoren, elkarretaratzea.
11:30etik 13:00etara, Foru
plazatik.

OLAZTI Ongi Etorri Euskaraldia.
Plaza puxikaz apainduko da eta
kartulinetan esaldiak idatziko
dira, ondoren kioskoan jarriko
dira. Argazki erraldoia aterako
da. Musika egongo da.
12:00etan, plazan.

LAKUNTZA Bidea gara, bidean
gaude. Izan bidea dinamikaren
herri erronka: Baietz 200 km
oinez edo lasterka.
12:00etatik 13:00etara, plazatik.

ARBIZU Bidea gara, bidean
gaude. Izan bidean dinamikaren
ekimen mobilizatzailea.
17:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Esencial
zirko ikuskizuna.
17:30ean, kultur etxean.

UHARTE ARAKIL Emakumeen
aurkako indarkeriaren kontrako

nazioarteko eguna. **Despiertas**
dokumentalaren emanaldia.
Sakanako Mank-eko Anitzartean eta
Berdintasun zerbitzuek eta Uharte
Arakilgo Emakume taldeak antolatuta.
18:00etan, alhondigan.

LAKUNTZA Xabier Artiedaren
Txor Txor bakarriketa
umoretsua.
18:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Bidea
gara, bidan gaude. Izan bidea
dinamikaren eskualdeko
manifestazio berezia: Oihan,
Asier, Luis, Unai, Juan Ramon,
Gurutx eta Karlosen etxeak lotuz.
19:30ean, plazan.

ALTSASU Gozamenez. *Drag
show*: Albita Stardust eta
Donatella Mani.
15 urtetatik aurrera.
19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 22

IRURTZUN Emakumeen aurkako
indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna. *Erradikalak
ginen* bertso antzerki
ikuskizuna Ane Labaka eta
Beatriz Egizabalekin.
19:00etan, kultur etxean.

ETXEBERRI Udazkena Sakanan.
Gure ibilbideak ezagutuz: Mapa
interpretazioa.
Izena emateak:
edukanatura@gmail.com,
616145686 edo 644555328.
10:00etan, Aixitan.

OLAZTI Euskañolitis: *Zergatik
praktikatzen dugu sexua
gatzeleraz?* Oihan Vegaren
bakarriketa.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal presoak,
Euskal Herrira elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 23

ALTSASU Pentsio duinen aldeko
kontzentrazioak.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 24

ALTSASU Emakumeen aurkako
indarkeriaren kontrako
nazioarteko eguna. *El nunca
me pegó* dokumentalaren
proiektzioa eta Irantzu
Varelarekin solasaldia.
Streaming bidez jarraitzeko aukera
izanen da.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 25

ETXARRI ARANATZ ETA
ALTSASU Osasun etxea zaindu!
Nafarroako
Osasun Plataformaren
elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxearen
aurrian.

SAKANA ERA gurasoen
eskola. Euskara, sareko
baliabideak, Google tresnak eta
zibersegurtasuna.
16:00etan, euskaraz eta
18:00etan, gaztelaniaz;
youtube.com/c/eranafarroa.

LAKUNTZA Genero indarkeriaren
aurka emakume langileok batu.
17:30ean, plazan.

ALTSASU Azaroak 25
Emakumeenganako
indarkeriaren aurkako
eguna. *Heteropatriarkatua
lehertu dezagun! Burbuila
nukelarrik ez, eskerrik asko!*
elkarretaratzea.
Altsasuko Bilgune Feministak,
Altsasuko Talde Feministak eta
Errafailak-ek antolatuta.
18:30ean, lortia zabalgunean.

ALTSASU Alex Txikonen
proiektzioa eta hizketaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 26

ALTSASU Sakana Sariak.
Sakanako Sozioekonomia
Behatokiak antolatuta.

ZORION AGURRAK



Zorionak Magali!
Ametsak pixkanaka
lortzen dira, segi
aurrera! Egundak polita
pasa!

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

Yolanda Mazkianaren *Anderea*
film dokumentalaren emanaldia
euskaraz
Ostirala 20: 19:00

Pinocho familiarikto filmaren
emanaldia
Igandea 22: 17:00

El Drogas gaurkotasunezko film
dokumentalaren emanaldia
Igandea 22: 19:30

Una pastelería en Notting Hill
zineforum filmaren emanaldia
euskaraz
Igandea 22: 19:40

Eso que tú me das
gaurkotasunezko film
dokumentalaren emanaldia
Osteguna 26: 19:00

Bi urte, lau hilabete eta egun bat
zineforum film dokumentalaren
emanaldia
Osteguna 26: 19:00

Streaming bidez jarraitzeko aukera
izanen da.

18:00etan, lortia kultur gunean.

URDIAIN Kafe konpondu
Sakanako Mankomunitateak
antolatuta.
17:30etik 19:30era, frontoian.

EGUNERO

ALTSASU Txikito gose eta
egarri graba mugagabeen
independentziaren eta
sozialismoaren alde.
Amnistiaren aldeko eta
Errepresioaren aurkako
Mugimenduak deitutako
kontzentrazioak.
20:00etan, udaletxe parean.



HIL OHARRA

Teresa Aierra Ballesteros gogoan



RAF ATXURI

Joan zen osteguneko berri zitalak saminez bete zigun eguna. Teresa Aierra goizean hila zen. Nekez sinets genezakeen albiste tristagarria, egin zioten ebakuntzatik ongi atera zelako bi egun lehenago, baina heriotza ustegabeen iritsi zitzaion.

Teresa orain dela

lau urte ezagutu genuen Altsasura etorri zenean bere aita Marinori buruzko hitzaldi batean parte hartzera. Ferroletik etorri zen Enrique senarrarekin eta lehen momentutik elkar hartze ederra eduki zuen Altsasurekin eta altsasuarrekin.

Egonaldi hartatik laguntasun handiak ehundu zituen eta berriz itzuli da Altsasura, azken aldian orain urtebete pasa, aitaren liburuaren berralgitaraldia tarteko. Ilusioz gainezka eta grinaz betea esku hartu zuen liburuaren aurkezpenetan Altsasun, Irunberrin nahiz Iruñean eta Marinoren beste liburu bat argitaratzeko bere prestuasun osoa agertu zuen.

Buenos Aiestarra jaiotzez eta izatez, Corralito garaian Ferrolera aldatu zen familiarekin, Canido auzoan bizimodu berriari ekin eta garbiketazerbiztuen enpresa txiki bat sortu zuen.

Emakume jantzia, alaia, zintzoa eta borrokalaria, aitaren ezpalekoa, injustizia egoerek barrua astintzen zioten, Altsasukoz gazteen auziak, esate baterako.

Altsasura etortzekoa zen, baina lehenik pandemiak eta ondoren heriotzak ez diote ahalbidetu bisita; dena dela bizilagunen bihotz gogoetan beti izango du, aitak bezala, txoko bat.

Goian bego, eta lurra arina izan bekio. Besarkada handi bat Enrique senar eta Pablo semeari.

Heriotza oharra argitaratzeko baldintzak

Testuak gehienez 1.900 karaktere izan behar ditu, hutsuneak barne. Bat eta bakarra onartuko da, ez baitira kapituluak onartuko. Idatzi guztiak egilearen izen-abizenekin argitaratuko dira. Testuak euskaraz idatziak bidali behar dira. Heriotzaren eta testu bidalketaren artean gutxienegun aste bateko tartea egon behar du. Espazio antolaketa dela-eta GUAIXEK eskubidea du jasotako testuaren argitalpena hurrengo astera atzeratzeko. Hala balitz idatzia bidali duenari jakinaraziko zaio. Heriotza-oharra bidaltzen duenak testuarekin batera honakoak bidali behar ditu: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Idatziak helaratzeko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

ESKELA



Teresa Aierra Ballesteros

Marino Aierra "Altsasuko apaizaren" alaba

Maitasuna eta poztasuna eman zenigun,
orain bihotzean eramanen zaitugu

Amaia, Rafa, Camino eta Maite

OROIGARRIA



Vicente Zufiaurre Pozueta

'Kalmante'

I. urteurrena

Urteak pasako dira eta gurekin egoten jarraituko duzu, gure istorioetan eta gure bihotzetan

Etxekoak

OROIGARRIA



Ane Begiristain Igoa

II. urteurrena

Jakin zazu gu artien zaudela
ta beti yonko zala
Maite zaitugu

Etxekuek

ESKELA



Santos Santano Sanabria



Ainhua Alvaro eta Maite Azpeitia juntakideen aitaginarreba

Urak dakarrena
urak daroa,
zuk emandakoa
gurekin gelditzen da.

Iñigo Aritza ikastolako familia, irakasle,
ikasle eta langileak

JAIOTZAK

- **Amair Oleaga Gonzalez**, azaroaren 7an Irurtzun
- **Adam Azani**, azaroaren 7an Altsasun

IRAGARKI
SAILKATUAK

LEHIAKETAK

Nafarroa Saltsa Berdean Errezeta lehiaketa: Eroski produktuak NNPEK sareko denda ekologiko batean, prestatu errezeta bat, egizu argazki bat eta bidali email bidez cpaen@cpaen.org helbidera produktua erosi duzun denda adieraziz. Abenduaren 15ean amaitzen da epea. Sariak, zure denda ekologikoan gastatzeko: 150 euro (urrezko errezeta), 100 euro (zilarrezko errezeta) eta 50 euro (brontzeko errezeta). Non erosi ditzakezu osagaiak? <https://navarraecologica.org/es/puntos-de-venta>

webgunean agertzen diren dendetan.

Kaixomaitia.eus Kontaketa Erotikoen Lehiaketa: Elkar argitaletxearen babesarekin, 18 urtetik gora dituzten herritarrek hartu ahaliko dute parte. Lanek 6000 eta 20000 karaktere bitarteko luzera artean, euskaraz eta argitaratu gabeak. KaiXomaitia.eus web orrialdera helarazi behar dira. Epea 2020ko abenduaren 21ean amaitzen da. Irabazleak 1000 euro, bigarren sailkatuak 500 euro eta hirugarrenak 250 euro.

OHARRA

Nafarroako Elikagai Bankuaren aldeko janari bilketa: azaroaren 22ra arte, igandera arte, egin

ahal izango da, baina jakin erosi eta kutxetan utzi beharrean, aurtan, dendetan diru ekarpena egingo da kreditu txartelarekin. Ezin da diru metalikorekin egin donazioa. Norberak egin nahi duen ekarpenaren berri dendarari emango dio, hark erosketa izango balitz bezala apuntatuko du kontuan—tiketean hala egongo da jasoa—, eta gero dendak ekarpena Nafarroako Elikagai Bankuari egingo dio. Zalantzaren bat egonez gero, dendariak emango dituzte beharrezko azalpenak. Ekimenean parte hartzeko deia egin dute, aurtan, "inoiz baino behar gehiago dagoelako".

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUI, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU

Santa Cruz, 6

ETXARRI ARANATZ

Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”



948 19 70 70



@Grupolrache



Grupolrache



www.tanatoriosirache.es



Mikelote eta Pantxo 'Ez Dok Ero' antzezlanaren protagonistak dira. GUILLERMO CASAS

Euskal komediaren On Kixotea

Tartean teatro konpainiak 'Ez Dok Ero' antzezlanaren mustu du. Patxo Telleria eta Mikel Martinez aktoreen Ez Dok Hiruren bikote artistikoaren ikuskizun berria da euskal kulturaren "road trip-a". Azaroaren 27an, ostirala, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean izanen da



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARATZU

'El Drogas, dokumentala'

"Zuzen jartzeko esaten didaten bakoitzean bizitza okertzen zait". Drogasen esaldi honek ezin hobeto definitzen du artista honen mundua ikusteko modua. Artista eroso dago bere itxuragabetasun naturalean, eta inposaketa bidezko edozein zuzentasunak kolokan jartzen du erabat egokitzen ez zaion munduarekin duen oreka hauskorra.

Zuzeneko kulturaren urritasun garai hauetan, zinema alternatiboa ona eta segurua da, gainerako animalengandik bereizten gaituen sensibilitatetik behin betiko aldendu ez gaitzen. Donostiako zinemaldian estreinatuta ondoren, *El Drogas, dokumentala* aretoan aurki dezakegu.

Dokumental musikala izatetik edo rock izar baten joan-etorrietan arreta jartzetik harago, mota honetako zintek ohituak gaituzten gehiegikeria

eta xelebrekeriekin, belaunaldi ezberdinei soinu banda jarri dien norbaiten alderik gizatiarrenetan eta familiarrenean zentratzen da.

Dokumentalaren lehen zatiak erakusten digu 70eko hamarkada nola bizi izan zen Txantrea bezalako langile auzo xume batean, musikari izan nahi zuen gazte batengan sakonduz joan zen garaiko errepresio politikoa, eta izaera borrokalaria eta errebindikatzailer bat sortu zuten bertan, gaur egun oraindik bizimodu bat bezala laguntzen diona.

80ko hamarkadan Barricada sortu zen, eta laster, edozein hiritan erraz identifika daitekeen auzo bateko kale bizitzaz bustitako abestiek Nafarroako mugak gainditzen dituzte eta estatu osoan zabaltzen dira. Esan liteke jada betetzen ez direnen ametsa

izan zela. Lankideen taldea, Iruñeko benetako lankideena, eta Iruñekoa diot gitarrajotzailea "villavesa"n fitxatzen dutelako, ezin da Iruñekoagoa izan, arrakasta lortzen du eta agertoki handietara eta diskoetxe handietara jauzi egitea lortzen du.

Taldearen sortzailea kanporatzeak bere alderik gizatiarrena erakusten digu, bere familiak, bazkideak, seme-alabek eta bilobek betidanik izan duten garrantzia. Lagunekin duen leialtasunak lagundu dio, nolabait, ibilbide musikal berri bati hasiera ematen, Txantrearen arrastoan lehen kontzertuetako ilusio eta gogo berarekin, eta, jakina, hemendik aurrera zeresan handiarekin.

Drogasen ibilbide musikal luzean zehar 80 minutuko ibilbidea egin ondoren, hori guztia irteera lerrora sasoian iristeko behar zen entrenamendua besterik ez zela izan iruditzen zitzaidan. Lasterketa hasi berria da, Drogasek oraindik asko du egiteko.

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ Mustutzearen ondoren "lasaiago" daudela aitortu du Mikel Martinez aktoreak. Azaroaren 10ean eta 11n *Ez Dok Ero* antzezlanaren mustu zuten Bilboko Arriaga antzokian. Euskal kulturaren, antzerkiaren eta gizartearen irudi "deformatua eta barregarria" erakusten du antzezlanak, "gure buruaz barre egiten dugu". Nafarroako estreinaldia Etxarri Aranazko kultur etxean egingen dute, azaroaren 27an, ostirala, 19:00etan. Ondoren, Euskal Herriko hamaika txoko gehiagotara joanen dira.

Mikelote eta Pantxo dira *Ez Dok Ero* antzezlanaren protagonistak. Literatura unibertsalaren On Kixoteren eta Santxo Panza liburuaren irudiak ekarri dituzte gogora. "Mikelotek, nik, errealtatearen interpretazio eszentrikoak egiten ditu". Baina Pantxo begiak irekitzen saiatzen da. Urte luzez antzokietan ibili ondoren, haien formula zaharra gelditu da, eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute. Pantxok ongi hartu du erretiroa, baina Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Hortaz, "antzerkilari ibiltaria" bihurtzen da herriz herri bere lan berria antzeztera joaten da.

"Euskal kulturaren hainbat mugarri bisitatutako ditugu: Durangoko Azoka, Arantzazuko santutegia...". Road trip edo bidaia itxurako antzezlan bat dela azaldu du Martinezek. "Fikzioa da, baina errealtatean oinarrituta dago; gure bizitzetan oinarrituta dago". Patxo Telleriak sortu du antzezlan "eroa".

Helburua "geure buruaz" barre egitea da, eta haien buruaz ez ezik, euskaraz eta euskal kulturaz barre egiten dute ere, "inoiz baino gehiago". 2003. urtean sortutako *Ez Dok Hiru* bikotearen

zigilua da. "*Euskera sencilloaren manifestoa, Lingua Nabajorum, Ez dok hiru euskal musikaren benetako istorioa...*" guztietan autoparodia egiten dugu". Norberaren buruaz barre egitea garrantzitsua dela esan du Martinezek, baita "porrotari" buruz barre egitea ere. "Porrota umorea egiteko asko erabiltzen da". Tartean teatroren "nortasuna" bada umorea egiteko bi elementu hauek. "Ironia" da gehien erabiltzen duten figura. "Eta ironia batzuetan zaila izaten da".

Antzezlanaren mustutzea "arrakastatsua" izan zela esan du aktoreak. "Gaur egungo neurriak kontuan hartuta, noski". Ikusleek "etengabe" barre egin zutela esan du, baina baziren "hunkitu" ziren ere. "Gehienbat kulturaren arloan lan egiten dutenek esan zuten oso hunkigarria izan zela". Azkenean, norberaren buruaz hitz egiteak sentimendu kontrajarriak sortzen ditu. "Baina beti errespetuarekin egiten dugu".

Arriskatzuz

Ez Dok Ero antzezlanaren duela urte bat inguru lantzen hasi ziren. Aurtengo azaroan estreinatzea aurreikusi zuten, baina tartean mundu mailako pandemia bat sortu zen. "Duela hilabete batzuk hasi ginen berriz entseatzeko". Antzerkigilea ez ezik, ikuslea ere badela aipatu du Martinezek, eta taularen gainean zein beste aldean ikusi ahal izan duenaren arabera, "jendeak antzokira joateko gogo da".

Etxarri Aranazkoa Nafarroako estreinaldia izanen da. Bira handia egingen dute ondoren, Euskal Herriko zehar, haien pertsonaien antzera: "Gaizki dago nik esatea, baina esango dut: *Ez Dok Ero* antzezlan oso ona da eta oso ongi pasako duzue. Gora antzerkia, gora euskara eta gora bizitza".

Antzerki zikloa

Etxarri Aranazko kultur zerbitzuak datozen hiru ostiraletarako antzerki zikloa antolatuta du. Emanaldiak 19:00etan izanen dira eta sarre-rak "astez aste" salduko dituztela jakinarazi dute kultur zerbitzutik. Zikloa gaur, azaroak 20, hasiko da Zirika Zirkusen *Pantxika Lamur Alter (H)Ego(ak)* ikuskizunarekin. Azaroaren 25eko Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako egunaren harira

antolatuta dute Pantxika Lamur pertsonaia protagonista duen antzezlanaren.

Datorren ostiralean, Euskal Herriaren erdian, *Ez Dok Ero* antzezlanaren izanen da Etxarri Aranatzeko. Antzerki zikloarekin amaitzeko, abenduaren 4an, Jon Plazaolaren *Irabazi* antzezlanaren izanen da. Inoiz ezer irabazi ez duen Felixen istorioa kontatzen du; bat-batean, sari bat jasoko duelako.

Eneida C. M. eta Erkuden R. B.
ETXARRI A.

Bertso saioak publikoarekin egin behar direla esan du Eneko Lazkoz bertsolari etxarriarrak. Bertsolaritzaren esentzia dira ikusleak. Haien barrerik, keinurik eta txalorik gabe, zaila da bertso saio bat egitea. Baina martxotik formatu horretan hainbat egin behar izan dituzte, hau da, ordenagailu pantaila batetik bota behar izan dituzte bertsoak. Pixkanaka eta osasun neurri guztiak jarraituz, bertso saioak antolatzen ari dira. Azaroaren 8an Etxarri Aranazko Kultura zerbitzuak goi mailako bertso saio arrakastatsua antolatu zuen Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Julio Soto, Nerea Elustondo eta Eneko Lazkoz bertsolariekin. Etxean aritu zen etxarriarra maskaradun publikoaren aurrean.

Martxoan dena eten zen, tartean kultura. Kulturaren barruan bertso-laritzea dago. Nola eraman duzu egoera?

Bertsolarien artean ni ez naiz kaltetuenetariko bat. Urte normal batean ez ditut plaza asko egiten, eta aurtan oso gutxi izango dira. Askoz kalte handiagoa izan dute astero kantatzen duten bertsolari horiek, bertsolaritzea ogibide bakarra edo ogibidearen jardun zati bat daukaten horiek, kalte-ituagoak izan dira. Kolpe ikargaria izan da. Kultura moztu zuten lehenengo gauzatariko bat izan zen, eta horrek denoi zer pentsatu eman behar liguke. Kulturaren aldeko jarrerak eta aldarrikapenak askotan entzuten dira, baina gero praktikan ikusi dugu zenbat inporta zaien erakundeei. **Aldi berean, kultura asko kontsumitu da.**

Bai, baina horrek ere ez digu utzi atzean dagoen arazoa ikusten. Tabernak itxi dizkigute eta denok eskuak burura eraman ditugu ezin dugulako kafe bat ere hartzera joan. Kultura ekitaldiak eten dituzte, eta Internetetik kontsumitzeko aukera dagoenez, inor ez da gogoratzen lanik gabe gelditu den artista horretaz. Eta ez artistak bakarrik, jende asko dago hortik bizi dena ere bai.


Egoera horretan, Nafarroako Bertsozale elkarteak Konfinamenduko bertso saioak antolatu zituen irratietan. Aukera bat izan daiteke?

Denok jaso genuen parte hartze-ko gonbidapena, baina ordutegiengatik ezin izan nuen. Online saioak ere egin dira kamerekin grabatuta eta jenderik gabe. Bai-

"Bertsoa bertsolariaren eta publikoaren komunikazioa da"

ENEKO LAZKOZ BERTSOLARIA

Bertsolariak ere pixkanaka taula gainera itzultzen ari dira. Kostata jarri dira berriz ere publikoaren aurrean, hainbat hilabetez saioak pantailaren "hoztasunaren" bidez izan ondoren



Eneko Lazkoz bertsolaria.

na niretako bertsoak jenderik gabe ez dauka zentzurik. Aurrekoan pilota partida telebistan ikusten egon nintzen eta niretako ez du zentzurik kirola edo bertsoak edo kontzertu batek jenderik ez badago. Are gehiago bertso saioak bertsolariaren eta publikoaren komunikazioan oinarritzen direlako, gehienbat. Pantailatik kantatzen ari zarenean oso hotza da. Nik saioaren bat egin dut horrelakoa. Ez duzu inolako erreaktziorik jasotzen, zu bakarrik zaude gelan. Baina publikoarekin parean dagoena ikusten da, eta txaloak entzuten dira.

Eta taulara itzuli zara, Etxarri Arantzen bertan.

Udako kultur ekitaldietan komentatu ziguten udazkenerako beste ziklo moduko bat prestatzen ari zirela, eta bertso saioaren bat egiteko ideia zutela. Ongi hartu nuen. Kontuan hartzekoa eta eskertzekoa da horrelako apustu bat egitea. Nafarroan batez ere, baina Euskal Herrian orokorrean, oso herri gutxitan egin dute horrelako apustua. Nik uste dut, kultura eta euskal kultura bereziki zaindu behar dela.

Gai bakarra izan zen: COVID-19.

"PANDEMIA BEZALAKO GAI BAT GUGAN HAIN PRESENTE DAGOENEAN, ZAILA DA IHES EGITEA"

Egia esan, beste zerbait espero nuen. Baina egia da ere ateratzen garen aldiro gai berdinez hitz egiten dugula: pandemia. Hortik ateratzea zaila da. Agian, gai horretatik ihes egiteko beste gai batzuk proposatuko balituzkete, guk ohartu gabe pandemiaren gaia ekarriko genuke. Azkenean, gudan hain presente dagoenean zaila da ihes egitea. Baldintza asko daude orain: publikoaren murrizketa, denbora murrizketa eta abar. Gainera, hain obediendeak bihurtu gara denok... Bost minutu beranduago ateratzeak ere beldurra ematen digula. Baldintza horiek dira eta horrela egin beharko ditugu gauzak.

Baina pozik, ezta?

Bai. Nahiko gogorra izan zen hainbeste denbora jendearen aurrean kantatu gabe, kostatu egiten delako. Besteak gehiago ari dira. Normalean baino askoz gutxiago, baina ari dira.

Nola da aurrean aurpegiak behar-rean, musukoak ikustea?

Harremana hoztu egiten da. Bertsoa oso barregarria denean, agian barreak aditzen dira, baina bestela publikoaren erreakzioak ez ikusteak asko hozten du. Kaleko harremanetan gertatzen ari den bezala, bertsolaritzan ere.

Kultura seguruaren aldarrikapena egin zenuen.

Gauza asko egin daitezke. Baina kontua da nahi izatea. Esaterako, Alerta Gorria taldearen kontzertu bat eserita ikusteak, agian, ez dakit zentzurik duen. Ez dut esan nahi Alerta Gorriaren kontzerturik ez dela antolatu behar, baina agian rock kontzertu batek mugitzea eskatzen dizu. Baina beste gauza batzuk neurriak beteta egin daitezke; antzerkia eta abar. Kulturari daukan garrantzia eman behar zaio, eta gauzak egiten saiatu behar dira.

Lanean jarraitu duzue?

Etxarriko bertsolariak elkartzen gara, eta gero gazteen bertso eskola ere martxan dago.

Bertsoaroa hasi zen hilaren hasieran. Nafarroako Bertsozale Elkarteak Iruñeko Udalaren laguntzarekin antolatzen du, eta azaroaren 26an ekimenaren amaierako jaialdian parte hartuko duzu. Prestatzen ari zara?

Duela hilabete eta erdi jaso nuen gonbidapena, eta prestatu, beno, data gerturatu ahala pentsatzen hasten zara.

Zer espero duzu?

Ez dakit zer izango den. Gai jarzailearen eskutan gelditzen da.

"Gure sustraiak ezagutzea garrantzitsua da"

Erkuden Sakana bezala ezaguna da sare sozial ospetsu batean Mayte Mendia altsasuarra. Duela 42 urte Kanadan bizi da, baina herriko tradizioak eta oroitzapenak gogoratzen ditu. Orain, ilobendako ohituretan oinarritutako ipuin bat idatzi du

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Kanadan bizi zaren arren, ez zara guztiz joan, ezta?

Altsasura guztiz lotuta jarraitzen dut. Gainera, Facebook-eko Zu ez zara Altsasukoa... taldea aurkitu nuenetik, erabateko kontaktua dut. Aurretik ere Burundako Ireneri esker informazioa jasotzen nuen, baita Juana Mari San Roman eta nire ahizpari esker ere. Baina nire ahizpa orain Gasteizen bizi da.

2 Tradizioak jarraitzen dituzu?

Esaten den bezala, neska herriatik atera dezakezu, baina herria neskatik ez. Hemen tradizioak mantentzea zaila da, noski. Baina egun garrantzitsuez gogoratzen naiz eta Internetera sartzen naiz ikustera zer egon den. Aurten ezer ez.

3 Urte hauetan itzuli zara herrira?

Oporretan askotan egon naiz. Nire seme-alabak eskolara joaten zirenean eta bi hilabeteko oporrak zituztenean Altsasun pasatzen genituen. Nire gurasoak oraindik Altsasun bizi ziren. Iazko udan ere egon nintzen seme gaztearekin. Altsasun nire lehengusina Maitetxu Poveda bizi da, eta hara joaten garenean hura bisitatzea



Mayte Mendia altsasuarra, Erkuden Sakana bezala ezaguna da sareetan. UTZITAKOIA

joaten gara. Ramon Mendia ere senide da, eta haiekin egoten gara.

4 Altsasu Kanadara eraman duzu, eta ilobendako ipuin bat idatzi duzu. Zeri buruz hitz egiten du?

Haurren ikuspegitik egiten saiatu nintzen. Zaharrenak zazpi urte ditu eta txikiak hiru bete behar ditu, orduan, haien pentsaeratik Altsasuko tradizioak kontatzen ditut: San Pedro,

txistua... Oinarria San Pedron erre zen haritza izan zen. Nire seme helduena ilustratzailea da eta berak egin behar ditu ilustrazioak.

5 Zergatik sortu duzu?

Nire ilobak Altsasurekiko lotura izateko. Nire seme-alabei jaio zirenetik transmititu diet Altsasuk duen guztia. Nik uste nik baino maiteago dutela. Nire haurtzaroko istorio asko ere kontatzen dizkiet. San Joan festa, abadiak, lizardiak eta txopoen ohitura... Oroitzapenak nahi gabe etortzen dira.

6 Zer esaten dute zure ilobek?

Gustatzen zaie. Orain, esaterako, momotxorroez jakin-mina dute. Gustatzen zaie. Ni kontatzen ari naizenean interesa adierazten dute behintzat. Interesa duten bitartean... nire gauzak kontatzen jarraituko dut.

7 Garrantzitsua da zure ilobek ipuin hori jasotzea?

Niretako garrantzitsua da jakitea nondik gatozen, zeintzuk diren gure sustraiak. Nik ez badiet hori transmititzen, hutsune bat izango dute. Badakite beren amona Espainiako Estatuko toki batetik datorrela, baina gutxi gehiago. Orduan, nondik datozen jakiteko eta bere sustraiak maitatzeko nik transmititu behar diet. Altsasura joaten direnean ez dezatela pentsa leku ezezagun batera joan direla, etxera joan direla senti dezatela baizik.

8 Argitaratzea erraza da?

Denetarik dago. Aukera horerena bilatzen nabil. Argitaletxe

batzuk 2000 kopia egitea eskatzen dizute, eta nik tirada oso txikia egin nahi dut. 20 bat ale senideei banatzeko.

9 Idatzi duzun lehenengo ipuina izan da?

Ipuina bai. Baina nik aurretik Argentinako aldizkari batendako idazten nuen. Politikaz eta abar hitz egiten nuen. Orduan, bururatu zitzaidan baina ipuin hau bakarra izan da. Ez nuen inoiz pentsatuko asmatutako ipuin bat sortzea.

10 Betidanik gustatu izan zaizu idaztea?

Bai. Idaztea gustatzen zait, baina politika arloan aritu naiz gehiago. Aita politikaren jarraitzailea zen, eta asko haserretzen zen politikarekin. Pozoi hori utzi zidan.

11 Sare sozialetan Kanadako bizitza erakustea ere gustatzen zaizu. Desberdintasun handiak ikusten dituzu?

Desberdintasunak izugarriak dira. Bitxikeriak erakustea gustatzen zait. Talde horretan kontatzen dute nolakoa den Altsasuko bizitza, eta ni saiatzen naiz kontatzen nolakoa den hemengo bizitza. Kultura elkartruke bat egiten da. Hasieran lotsa ematen zidan herriari buruzko talde bat zelako, baina ikusi nuenean denetarik hitz egiten zela, Kanadako gauzak igotzera animatu nintzen. Ni oso kuxkuxeroa naiz, eta historia eta tradizioak ezagutzea gustatzen zait. Orduan, iruditzen zait ni bezalako jendea egon daitekeela. Horregatik hartu-eman hori egotea gustatzen zait.



BABESTU ZURE MARKAREKIN

Musuko eskaintza zabala.
Modelo, kolore eta diseinu ezberdinak.
Aukeratu zurea!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA

619 821 436

info@gkomunikazioa.eus

Foru plaza, 23-1. Altsasu